

2018KO APIRILAREN 25EAN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXOKO UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.	ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, EL DÍA 25 DE ABRIL DE 2018.
=====	=====
<u>BERTARATUAK</u>	<u>ASISTENTES</u>
<u>LEHENDAKARIA</u>	<u>PRESIDENTE</u>

Imanol Landa Jauregi jn.

<u>ALKATEORDEAK</u>	<u>TENIENTES DE ALCALDE</u>
---------------------	-----------------------------

Keltse Eiguren Alberdi (EAJ-PNV)
Koldo Iturbe Mendilibar (EAJ-PNV)
Joseba Arregui Martínez (EAJ-PNV)
José Luis Landa Arteché (PSE-EE (PSOE))

<u>ZINEGOTZIAK</u>	<u>CONCEJALES</u>
--------------------	-------------------

Ignacio Uriarte Gorostiaga (EAJ/PNV)
Alvaro González Pérez (EAJ/PNV)
Elena Coria Yanguas (EAJ/PNV)
Amaia Agirre Muñoa (EAJ/PNV)
Irantzu Uriarte Gómez (EAJ/PNV)
Iñaki Gamero Delgado (PP)
Eduardo Andrade Aurrecoechea (PP)
Raquel González Díez-Andino (PP)
Miguel Ibabe Botella (PP)
Susana De Cos Yañez (PP)
Paula Amieva Clemente (GUK)
Susana Andollo González (GUK)
Francisco Enrique Prada Olleta (GUK)
Enrique Olaso García (GUK)
Oier Iturralde Fernández (EH BILDU)

Maite Arraiza Aramendia (EH BILDU)
Ibon Rodríguez Larrinaga (EH BILDU)
Nerea Guijarrubia García (EH BILDU)
Teresa Escalante Reina (PSE-EE (PSOE))
Santiago Sainz Robles (C'S)

<u>IDAZKARI NAGUSIA</u>	<u>SECRETARIO GENERAL</u>
-------------------------	---------------------------

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita jn.

Getxoko Udalaren Udaletxeko Bilkura Aretoan eta Alkate-Lehendakaria Imanol Landa Jauregi jauna dela, egun horretako arratsaldeko lauretan, Udalaren Osoko Bilkura bildu da, lehen deialdian, ohiko bilkura egiteko. Bilkura horretara lehen adierazitako kideak joan dira eta baita kontuhartzaile nagusia ere, Nuria Hernández Soto andrea.

Alkate jaunak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkurari hasiera eman dio eta jarraian Deialdiko Aztergaien Zerrenda barruan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaidza honakoa izan da:

55.- GETXOKO UDALBALTZAK 2018KO MARTXOAREN 28AN EGINDAKO AURREKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA ONESTEA.

2018ko martxoaren 28an Getxoko Udaltzasko egindako ohiko bilkuraren akta aho batez onestea.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de Getxo y bajo la presidencia del Sr. Alcalde-Presidente, don Imanol Landa Jauregi, se reunió a dieciséis horas de este día el Pleno del Ayuntamiento, para celebrar sesión ordinaria, en primera convocatoria, con asistencia de los corporativos expresados al margen, más la Interventora general, Nuria Hernández Soto.

El Sr. Alcalde, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

55.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 28 DE MARZO DE 2018.

Por unanimidad se aprobó el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada por el Pleno del Ayuntamiento de Getxo el día 28 de marzo de 2018.

LEHENDAKARITZA ETA GIZARTE
ZERBITZUAK

56.- UDALTZAINGOAREN
ARAUDIAREN ALDAKETA
PARTZIALAREN HASIERAKO
ONESPENA.

Proposamena irakurri ondotik, Keltse Eigurenek hartu du hitza hura azaltzeko. Adierazi du indarrean dagoen autonomia-araudira egokitzea dela Udaltzaingoari dagokionez, Getxoko Udalak Udaltzaingoaren Araudia onartu eta gero emandakoa. Jakinarazi du aurreikusten dela etorkizun hurbilean Polizien Legearen beste aldaketa bat egongo dela, Legebiltzarreko izapidetze-fasean dagoena. Amaitzeko, adierazi du aurkeztu den aldaketak ez diola eragiten LPZri eta ez duela eragin ekonomikorik.

GUK taldeak aurkeztutako zuzenketa irakurri du Paula Amievak. Bertan, autonomia-araudira egokitzea planteatzen da. Proposatu den egokitzearen desberdina da eta helburu du polizien eginkizunak haiek garatu behar dituzten lanpostuetara doitzea. Desadostasuna honetan datza, nagusiki: eginkizunak eta lanbide-kategoriak doitzean. Gogora ekarri du Eusko Jaurlaritzak, udaltzaingoan antolaketa-esparruetan zegoen heterogeneotasunaren aurrean, 58/2015 Dekretua eman zuela. Dekretuaren asmoa da udaltzaingoan barne-antolaketa homogeneizatzea, Udaltzaingoa eratzen duten eskala desberdinei eginkizunak zehaztuta eta haien barnean kategoria desberdinei, udalerrri bakoitzari aginduta eginkizunak atxikitzeko dagozkien kategoriei. GUK taldeak uste du proposamenak ez dizkiela zuzen

PRESIDENCIA Y SERVICIOS
SOCIALES

56.- APROBACIÓN INICIAL DE LA
MODIFICACIÓN PARCIAL DEL
REGLAMENTO DE LA POLICÍA
LOCAL.

Tras darse lectura a la propuesta interviene Keltse Eiguren para explicar la misma indicando que es una adecuación a la normativa vigente autonómica respecto a la Policía Local dictada tras la aprobación por el Ayuntamiento de Getxo del Reglamento de la Policía Local. Informa que en un futuro próximo se prevé que se produzca otra modificación de la ley de Policía que está en fase de trámite parlamentario. Finaliza manifestando que la modificación que se presenta no afecta ni a la RPT ni tiene efectos económicos.

Paula Amieva da lectura a la emienda presentada por GUK en la que se plantea una adecuación a la normativa autonómica diferente a la que se propone y que busca ajustar las funciones policiales a los puestos que deben desarrollarlas. La discrepancia se centra en el ajuste de funciones y categorías profesionales. Recuerda que el Gobierno Vasco ante la heterogeneidad existente en los ámbitos organizativos de las policías locales dictó el Decreto 58/2015 que pretende homogeneizar la organización interna de las policías, determinando funciones a las diferentes escalas que conforman la Policía Local y dentro de las mismas a las distintas categorías, encargando a cada municipio adscribir las funciones a las categorías correspondientes. GUK estima que la propuesta no adscribe correctamente las funciones a las escalas y cree que hay que modificarla

atxikitzen eginkizunak eskalei eta zuzenketan planteatutako zentzuan aldatu behar dela. Onartuko balitz, berekin ekarriko lituzke barne-sustapeneko prozesuak, merezimendu-eta gaitasun-printzipioei lotutako proben bidez, eta, gainera, hautaketa-prozesuei berezkoa zaien prestakuntza bermatuko luke.

Keltse Eigurenek erantzun du aurkeztutako proposamena udal araudia 58/2015 Dekretura egokitzea jasotzera mugatzen dela, alde batera utzirik garrantzi edo sakontasun handiagoko erreforma bat egin ahal izatea aurrerago, izapidetzen ari diren Polizien Legearen bosgarren aldaketa onartzen dutenean. Azaldu du proposamenak betetzen duela 58/2015 Dekretuan exijitutakoa eta nabarmendu du dekretu horrek ez duela zehazten lanpostuen kategoria, baizik eta eskala bakoitzari gehienbat dagozkion eginkizunak. Zuzenketaren asmoa da polizia-kategoriak izendatzea egon daitezkeen edo egon ez daitezkeen zenbait lanposturi, baina hori ez da egokitzearen xedea. Amaieran gehitu du zuzenketak lanpostuak kategoriekin nahasten dituela.

Ibon Rodriguezek adierazi du EH Bildu abstenitu egingo dela zuzenketari dagokionez. Ez dute gaizki ikusten, baina ez dio erantzuten oinarritzko arazoari, Getxoko Udaltzaingoaren ereduaren definizioari, alegia. Aurkeztutako proposamenari dagokionez ere abstenitu egingo da, hark ere ez baitio erantzuten kontu horri.

Paula Amievak adierazi du gauza bat dela Udaltzaingoan dagoen egiturazko arazoari irtenbidea ez ematea eta beste bat dela autonomia-araudia zuzen ez

en el sentido planteado en la enmienda, que de aceptarse conllevaría procesos de promoción interna mediante pruebas sujetas a los principios de mérito y capacidad, además de garantizar la formación inherente a los procesos selectivos.

Keltse Eiguren responde que la propuesta presentada se limita a recoger la adaptación del reglamento municipal al Decreto 58/2015 sin perjuicio de una reforma de mayor intensidad que pueda realizarse más adelante cuando se apruebe la quinta modificación de la Ley de Policía en trámite. Explica como la propuesta cumple lo exigido en el Decreto 58/2015 e incide que dicho decreto no determina la categoría de los puestos sino las funciones que preferentemente corresponden a cada escala. La enmienda pretende asignar categorías policiales a determinados puestos que podrán o no existir pero ese no es el objeto de la adaptación. Finaliza manifestando que la enmienda confunde puestos con categorías.

Ibon Rodríguez indica que EH Bildu se abstendrá respecto a la enmienda aunque no la vean mal pero que no da respuesta a la problemática fundamental que es la definición del modelo de Policía Local de Getxo y que también se abstendrán respecto a la propuesta presentada ya que tampoco da respuesta a dicha cuestión.

Paula Amieva manifiesta que una cosa es no dar solución al problema estructural que hay en la Policía Local pero otra cosa es no cumplir

betetzea eta are nahasmendu handiagoa eragiten duen proposamen bat aurkeztea. Gehitu du kontraesana dagoela eta gabeziak, araudian ikusten direnak, eta egokitzeko prozesu honekin irtenbidea eman beharko litzaiekeela. Adierazi du zuzenketa ez bada onartzen proposamenaren kontrako botoa emango dutela. Udaltzaingoko administrazio orokorreko teknikariaren txostena dela-eta, nabarmendu du une bakar batean ere ez dela adierazi aurkeztutako zuzenketa zuzenbideari egokitzen ez zaionik.

Ibon Rodríguez argitu du EH Bilduk ulertu dituela zuzenketa eta aplikatzeko araudia, baina zuzenketak ontzat ematen duela egungo organigrama eta, bere taldearen iritziz, antolabide horrek ez dio erantzuten benetako arazoari. Horregatik ez dira kontu horretan sartu.

Keltse Eigurenek proposamena 58/2015 Dekretuari egokitzen zaiola errepikatu du, eta dekretu horretako 7. artikulua irakurri eta hura betetzen dela justifikatu du. Berrito adierazi du beste gogoeta batzuk ondorengo une baterako utziko dituztela Polizien Legearen aldaketa izapidetzen ari baitira, eta aldaketa horrek antolaketako-alderdiei eragingo die eta, logikoki, Getxoko Udaltzaingoaren araudian eta LPZn eta plantillan bere eraginak izango ditu.

Paula Amievak nabarmendu du Udaltzaingoaren egiturazko arazoei buruzko gogoeta egitea orain egokia den edo ez erabakitzea irizpide politikoa dela eta zehaztu du zuzenketa sindikatuekin hitz egin eta gero aurkeztu dutela. Sindikatuei ondo iruditu zaie pausoak ematea,

correctamente la normativa autonómica y presentar una propuesta que genera aún mayor confusión. Indica que hay contradicción y carencias que se observan en el reglamento y que con este proceso de adaptación se debieran de resolver y si no se acepta la enmienda votarán en contra de la propuesta. Respecto al informe de la técnico de administración general de la Policía recalca que en ningún momento manifiesta que la enmienda presentada no se ajuste a derecho.

Ibon Rodríguez indica que EH Bildu ha entendido la enmienda y la normativa de aplicación, pero la enmienda da por bueno el organigrama actual y en opinión de su grupo esa organización no responde al verdadero problema y por ello no entran a dicha cuestión.

Keltse Eiguren reitera lo manifestado de que la propuesta se adecúa al Decreto 85/2015, dando lectura al artículo 7 de dicho decreto y justificando el cumplimiento del mismo. Insiste que otras reflexiones las posponen a un momento posterior ya que se está tramitando una modificación de la Ley de Policía que afectará a aspectos organizativos y que tendrá, lógicamente, sus efectos en el reglamento de la Policía Local de Getxo y también en la RPT y en la plantilla.

Paula Amieva reclama que determinar si procede ahora o no la reflexión sobre problemas estructurales de la policía es un criterio político y matiza que han presentado la enmienda tras hablar con los sindicatos, a los que les ha parecido positivo dar pasos sin esperar futuras modificaciones. Plantea como

etorkizuneko aldaketen zain egon gabe. Egokitze zuzen baten erreferentzia moduan Bilboko Udaltzaingoan dagoen LPZ planteantu du, hartan argitzen baita zein plaza behar diren lanpostu desberdinetara iristeko.

Zuzenketa bozkatu da eta ez da onartu, aldeko botoak 4 izan baitira (GUK), aurkakoak 11 (EAJ, PSE-EE) eta abstentzioak 10 (PP, EH Bildu, Ciudadanos).

Jarraian, Ibon Rodriguezek hartu du hitza berriro. Proposamenari dagokionez, lehenago adierazitakoari dagokio eta uste du gobernu taldea pitin bat berandu iritsi dela. Izan ere, 58/2015 Dekretura egokitzeko zegoen hiru urteko epea ahitu du eta ez du denbora hori aprobetxatu polizia-ereduari buruz eztabaidatzeko, eta hori da EH Bilduk eskatzen duena. Horrenbestez, eztabaida hori egiten ez den bitartean, ez dute babestuko aldaketa arinik, sakonean dagoen arazoa aztertzen ez dutenak.

Proposamena bozkatu da eta emaitza hau izan da: aldeko 11 boto -EAJ, PSE-EE-, aurkako 4 boto -GUK- eta 10 abstentzio -PP, EH Bildu, Ciudadanos-.

Ondorioz, Lehendakaritza eta Gizarte Zerbitzuen Informazio Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

LEHENENGOA.- Hasiera batean onestea Udaltzaingoaren araudiaren aldaketa partziala, termino hauetan:

1.- Aldatu egiten da 5. artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

referencia de una adaptación correcta la RPT existente en la Policía Municipal de Bilbao que clarifica qué plazas son necesarias para acceder a los diferentes puestos.

Sometida la enmienda a votación es rechazada al obtener 4 votos a favor de GUK; 11 votos en contra, PNV, PSE-EE; 10 abstenciones, PP, EH Bildu, Ciudadanos.

A continuación interviene Ibon Rodríguez para manifestar que respecto a la propuesta se remite a lo indicado anteriormente y cree que el equipo de gobierno llega un poco tarde ya que ha agotado el plazo de tres años que había para adaptarse al Decreto 85/2015 y han desaprovechado ese tiempo para debatir sobre el modelo de policía, que es lo que EH Bildu pide, y que en tanto no se produzca ese debate no van a entrar a apoyar ligeras modificaciones que no analizan la problemática de fondo.

Sometida la propuestas obtiene el siguiente resultado: 11 votos a favor, PNV, PSE-EE; 4 votos en contra, GUK; 10 abstenciones, PP, EH Bildu, Ciudadanos.

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Presidencia y Servicios Sociales, por mayoría se acordó:

PRIMERO.- Aprobar inicialmente la modificación parcial del Reglamento de la Policía Local, en los siguientes términos:

1º.- Modificar el artículo 5, quedando redactado como sigue:

“5. artikulua.- Izaera juridikoa.

Getxoko Udaltzaingoa izaera zibileko Institutu Armatua da. Kidego bakarra da, eta egitura eta antolaketa hierarkiakoak ditu. Gainera, alkatearen aginte gorenaren menpean dihardu”.

2.- Aldatu egiten da 2. Tituluaren izendapena, “Egitura eta antolaketa”, eta horren ordean “Kidegoaren egitura, antolaketa eta funtzionamendua” jarriko da.

3.- Aldatu egiten da 19. artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

19. artikulua. Egitura

1. Udaltzaingoaren kidegoa eskala eta kategoria hauetan egituratzen da, bertan sartzeko exijitzen den titulazioaren arabera adierazten diren sailkapeneko azpitaldeekin bat datozenak:

Aurreko atalean xedatutakoa gorabehera, kidegoan sartzeko oinarrizko ikastaroa eta praktika-aldia gainditu ondoren, Udaltzaingoko kidegoa oinarrizko eskalako funtzionario izendatuak diren pertsonak euskal administrazio publikoetako funtzionarioen sailkapeneko C1 azpitaldean sailkatuta egongo dira, EAeko Poliziaren 4/1992 Legearen 118.2 artikuluan ezarritako ondorioekin bat etorritik.

- Ikuskapen-eskala: ofizial eta ofizialorde kategoriekin, C1 azpitaldekoak.

- Oinarrizko eskala: agente lehenaren eta agentearen kategoriekin, C2 azpitaldekoak.

2. Eskala berean goragoko kategoria bat edo goragoko eskala batean kategoria bat ezartzeko, beharrezkoa izango da eragiten

“Artículo 5 . Naturaleza Jurídica

El cuerpo de la Policía Local de Getxo es un Instituto Armado de naturaleza civil, integrado en un Cuerpo único, con estructura y organización jerarquizada, bajo la superior autoridad del alcalde.”

2º.- Modificar la denominación del Título 2º. “Estructura y Organización” y sustituir por “Estructura, Organización y Funcionamiento del Cuerpo”.

3º.- Modificar el artículo 19, quedando redactado como sigue:

Artículo 19º. Estructura

1. El Cuerpo de la Policía Local se estructura en las siguientes escalas y categorías, que se corresponden con los subgrupos de clasificación que se indican en función de la titulación exigible para el ingreso:

No obstante lo dispuesto en el apartado anterior, quienes, tras superar el curso básico de acceso y el período de prácticas, sean nombrados funcionarios de la escala básica del cuerpo de Policía local, se entenderán clasificados en el Subgrupo C1 de clasificación del personal funcionario de las administraciones públicas vascas, de acuerdo con los efectos determinados en el artículo 118,2 de la Ley 4/92, de Policía del País Vasco.

-Escala de Inspección: Con las categorías de Oficial y Suboficial, correspondientes al Subgrupo C1.

-Escala Básica: con las categorías de Agente 1º y Agente, correspondientes al Subgrupo C2

2. Para el establecimiento de una categoría superior en la misma escala o una categoría en otra escala superior, será necesaria la

zaion eskalako beheagoko kategoriak aldeztu aurretik izatea, eta, halaber, beheagoko eskaletako kategoría guztiak.

preexistencia de todas las categorías inferiores de la escala afectada y todas las categorías de las escalas inferiores.

3. Udaltzaingoaren antolamendu eta eragimen egituran honako lanpostu hauek izan ahalko dira:


3.- En la estructura organizativa y operativa de la Policía Local podrán existir los siguientes puestos:


- Zuzendaria
- Ofiziala
- Eragiteko Burua
- Atalburua
- Ofizial Ondokoa
- Zerbitzburua
- Agente Lehena.
- Agentea
- Trafiko laguntzaileak

- Jefe/a del Cuerpo
- Oficial
- Jefe de Operaciones
- Jefe de Sección
- Suboficial
- Jefe de Servicio
- Agente 1º
- Agente
- Auxiliares de Tráfico

4. Ondorioz, Getxoko Udaltzaingoaren Organigrama hierarkikoa hauxe izango da:

4.- En consecuencia, el Organigrama Jerárquico del Cuerpo de la Policía Local de Getxo quedará como sigue:





4.- Aldatu egiten da 20. artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

“20. artikulua. Behar diren titulazioak.

Kategoria bakoitzean sartzeko, plazaei dagokienez, funtzio publikoari buruz indarrean dagoen araudian azpitalde bakoitzerako exijitzen den titulazioa eduki beharko da”.

5.- Aldatu egiten da 21. artikulua. Idatz-zati bat erantsiko zaio, 1. idatz-zatia izango dena, eta orain dagoen idatz-zati bakarra 2. idatz-zatia izango da.

Aldaketa proposamen honekin, artikulua honela geratuko da idatzita:

“21. artikulua. Kideen kopurua

1.- *Udaltzaingoaren kidegoan legez edo erregelamenduz ematen zaizkien funtzioak betetzeko behar adina kide izango ditu.*

2.- *Udaltzaingoko kidegoko plantillako kide kopurua Getxoko Udalak urtero onesten duen plantilla organikoan finkatzen duena izango da”.*

4º.- Modificar el artículo 20, quedando redactado como sigue:

“Artículo 20º. Titulaciones requeridas

El acceso para cada una de las categorías en cuanto a plazas se refiere, exigirá estar en posesión de la titulación requerida para los Subgrupos correspondientes por la vigente legislación sobre Función Pública.”

5º.- Modificar el artículo 21, por el que se adiciona un nuevo apartado que será el apartado 1, y pasando el actual apartado único a ser el apartado 2.

Con la propuesta de modificación que se propone el artículo queda redactado como sigue:

“Artículo 21. Número de efectivos

1.- *El Cuerpo de Policía Local contará con los efectivos suficientes para atender las funciones que le vengán atribuidas legal o reglamentariamente.*

2.- *La plantilla del Cuerpo de la Policía Local contará con el número de efectivos que le sean fijados en la Plantilla Orgánica que anualmente apruebe el Ayuntamiento de Getxo en la Plantilla Orgánica que anualmente apruebe el Ayuntamiento de Getxo.”*

6.- Aldatu egiten da III. kapituluko enuntziatua. "Plantillako zuzendaritza eta buruak" zen, eta honekin ordeztuko da: "Kidegoaren burutza eta plantilla".

7.- Aldatu egiten da 22. artikulua, oso-osorik, eta honela idatzita geratzen da:

22. artikulua. Kidegoaren burutza.

"1.- Udaltzaingoaren berehalako agintea kidegoaren burutzari egokituko zaio.

2.- Kidegoaren burutzaren titulartasuna eta egikaritzea izateak ekarriko du kidegoaren zuzendaritza, koordinazioa eta agintea gauzatzea, edozein eskalatan egonik ere.

3.- Udaltzaingoaren Burutzari dagozkion lanpostuen kategoriaren zehaztapena Udaltzaingoaren kidegoarentzat onetsitako egituran hierarkikoki nagusia den kategoriak egin behar du, maiatzaren 5eko 58/2015 Dekretuaren 6.2 eta 3 artikuluan ezarritako irizpideak kontuan izanik".

8.- Aldatu egiten da 23. artikulua enuntziatua. "Kidegoaren zuzendariaren funtzioak" jarri behar, "Kidegoaren burutzaren funtzioak" jarriko da.

9.- Aldatu egiten da 25. artikulua (Funtzioak eta eskumenak), honela:

- I. idatz-zatia, "Lantalde nagusiaren arduraduna", kentzea. Beraz, epigrafe hauek aldatuko dira, modu korrelatiboan.

- IV. idatz-zatian, "Operazio-burua",

6°.- Modificar el enunciado del Capitulo III del Titulo 2º: "De la Dirección y Mandos de la Plantilla" y sustituir por "De la Jefatura del Cuerpo y de la Plantilla"

7°.- Modificar el artículo 22 en su integridad, quedando redactado como sigue:

Artículo 22º. De la jefatura del Cuerpo.

"1.- El mando inmediato de la Policía Local corresponderá a la Jefatura del Cuerpo.

2.- La titularidad y el ejercicio de la Jefatura del Cuerpo conllevará la dirección, coordinación y mando del cuerpo cualquiera que sea la escala a la que pertenezca.

3.- La determinación de la categoría correspondiente a los puestos de trabajo correspondientes a la Jefatura de la Policía Local corresponderá a la categoría jerárquicamente superior en la estructura aprobada para el cuerpo de Policía Local, atendiendo a los criterios establecidos en el artículo 6.2 y 3 del Decreto 58/2015, de 5 de mayo."

8°.- Modificar el enunciado del artículo 23 "Funciones del Director del Cuerpo, que deberá sustituirse por "Funciones de la Jefatura del Cuerpo".

9°.- Modificar el artículo 25 (Funciones y competencias) en los siguientes términos:

- Suprimir el Apartado I "Responsable de la Plana Mayor", y por tanto modificar los epígrafes siguientes, de forma correlativa.

- Suprimir el párrafo 1º del Apartado

lehenengo paragrafoa kentzea.

- 25. artikuluari azken idatz-zati bat gehituko zaio:

“ Gehigarria

“Langile funtzionario guztiek poliziaz-erbitzuak emateko beharrezkoak diren zereginak egin beharko dituzte, eta, hala badagokio, eskala edo kategoria edozein izanda ere, poliziarri dagokion edozein jarduketa egingo dute berehalako esku-hartzea beharrezkoa denean”.

10.- Aldatu egiten da 26. artikuluko (Ordezkapenak) azken paragrafoa. Indarrean dagoen testuak hau xedatzen du: “Zuzendariaren ordezkaria alkate-udalburuak, edo berak eskuordetzen duen udaleko kideak, egingo du, zuzendariak proposatuta, ahal denean, administrazio ebazpen egokiaren bidez”. Horren ordezkari, hau jarriko da: “Kidegoko burua aldi batez ez badago, kategoria bereko polizia-funtzionario batek ordeztuko du eta, horrelakorik ez badago, azpiko kategoriako batek”.

11.- 2. Tituluan IV. “Kidegoaren Funtzionamendua” kapitulu bat gehituko da, non 27, 28 eta 29. artikuluek sartuko diren, aldaketarik jasan gabe.

12.- Aldatu egiten dira 34. artikuluko (Epaimahai kalifikatzaileak) 6. eta 7. idatz-zatiak. Honela geratuko dira idatzita:

“6.- Sektore publikoko araubide juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan edo une bakoitzean indarrean dagoen araudian ezarritako inguruabarretakoren batean dauden pertsonak ezin izango dira epaimahaietako

IV “Jefe de Operaciones”.

- Adicionar un último apartado al artículo 25 del siguiente tenor literal:

“ Adicional

“Todo el personal funcionario vendrá obligado a realizar los cometidos que demande la ejecución de los servicios policiales y, en todo caso, cualquiera que sea la escala o categoría a la que pertenezcan, realizarán cualquier actuación propia de la función policial que precise de una intervención inmediata.”

10º.- Modificar el último párrafo del artículo 26 (Sustituciones); en el texto vigente dispone “La sustitución del Director se realizará por el Alcalde-Presidente o miembro de la Corporación en quien delegue a propuesta del Director, cuando ello sea posible, mediante la oportuna resolución administrativa” debe sustituirse por “En los casos de ausencia temporal, el jefe o jefa del Cuerpo será sustituido por un funcionario o funcionaria policial de la misma categoría y, en caso de carencia, por uno de la categoría inferior inmediata existente en el mismo.”

11º.- Adicionar dentro del Título 2º, un Capítulo IV “Funcionamiento del Cuerpo” en el que se integren los artículos 27, 28 y 29, los cuales no sufren modificación.

12º.- Modificar los apartados 6º y 7º del artículo 34 (Tribunales calificadoros), que quedan redactados en los siguientes términos:

“6.- Deberán abstenerse de formar parte en los Tribunales, notificándolo a la Autoridad convocante, aquellas personas en quienes se de alguna de las circunstancias señaladas en el artículo 23 de la Ley 40/2015 de 1 de octubre, de Régimen jurídico del Sector

kide izan, eta deialdia egiten duen agintariari jakinarazi beharko diote inguruabar hori.

7.- Araudi honetan berariaz ezarrita ez dagoen guztirako, Sektore publikoko araubide juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15-18 artikuluetan, hirugarren atalean, kide anitzeko organoentzat ezarritakoa aplikatu beharko zaie epaimahai kalifikatzaileei”.

13.- Aldatu egiten da 57. artikuluko 3. idatz-zatia. Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakiaren erreferentzia kentzen da.

14.- Aldatu egiten da 60. artikulua (Emblemak), 2. eta 3. idatz-zatiak kenduz, eta 2. idatz-zati berri bat eginez:

2.- “Emblemak EAeko Udaltzaingoen Uniformeen Eskuliburuan ageri direnak izango dira”.

15.- Aldatu egiten da 9. tituluaren enuntziatua, “Sariak”, horren ordez “Aitortza eta bereizgarriak” jarriz

16.- Aldatu egiten da 66. artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

66. artikulua: “Getxoko Udaltzaingoko agenteei urtarrilaren 26ko 27/2010 Dekretuan, EAeko Udaltzaingoko kidegoei aplikatu beharreko kondekorazio eta bereizgarrien araubideari buruzkoan, xedatutakoa aplikatu beharko zaie aitortza eta kondekorazioei dagokienez”.

17.- Kendu egiten dira 67 - 80 artikulua, biak barne.

BIGARRENA.- Erabaki hau eta beraren espedientea jendaurrean erakutsiko

Público, o en la normativa que se encuentre vigente en cada momento.

7º.- *En todo lo no previsto expresamente en este Reglamento, será de aplicación a los Tribunales Calificadores lo dispuesto, para los órganos colegiados, en la Sección Tercera, artículos 15 a 18 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.”*

13º.- Modificar el apartado 3 del artículo 57, suprimiendo la referencia al número del Documento Nacional de Identidad.

14º.- Modificar el artículo 60 (Emblemas) suprimiendo los apartados 2 y 3 y sustituyendo por un nuevo apartado 2 que queda redactado como sigue:

2.- “Los emblemas serán los que figuran en el Manual de Uniformidad de las Policías Locales del País Vasco”.

15º.- Modificar el enunciado del Título 9º “Premios y Recompensas” y sustituir por “Reconocimientos y distinciones”

16º.- Modificar el artículo 66 y, quedando redactado como sigue:

Artículo 66: “A los agentes de la Policía Local de Getxo les será de aplicación en cuanto a Reconocimientos y distinciones, lo dispuesto en el Decreto 27/2010, de 26 de enero, sobre el Régimen de Condecoraciones y Distinciones aplicables a los Cuerpos de Policía Local del País Vasco, o en la normativa vigente en cada momento”.

17º.- Suprimir los artículos 67 al 80, ambos inclusive.

SEGUNDO.- Someter este acuerdo y el expediente del que dimana a

dira, eta interesatuei entzunaldia emango zaie. Horretarako, iragarkia argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, hogeita hamar egunez, erreklamazioak eta iradokizunak egiteko.

Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, ordura arte behin-behinekoa izango den erabakia behin betikoa dela joko da. Araudiaren testu osoa, aldaketa hau barne, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da, argitaratzen denetik 15 eguneko epean indarrean sar dadin, Toki Araubideari buruzko Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Modu berean, testu osoa eta bat egina udalaren webgunean argitaratuko da.

OGASUNA, KONTUAK,
EKONOMIA-SUSTAPENA, GIZA
BALIABIDEAK, HEZKUNTZA,
GAZTERIA ETA EUSKARA

57.- 1025/2018 ZENBAKIDUN
DEKRETUAREN BERRI EMATEA:
AURREKONTUA GEHIGARRIZKO
KREDITUZ BALIATUTA
ALDARAZI.

Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta, osoko bilkurara helarazi da hurrengo

Kreditu gehigarriaren bidezko aurrekontu-aldaketaren Dekretu hau jakitun egon:

1025//2018 zenbakidun Dekretua 6.661,05 euroko zenbatekoarekin.

información pública y audiencia a los interesados, mediante la inserción del correspondiente anuncio en el Boletín Oficial de Bizkaia, por el plazo de treinta días para la presentación de reclamaciones y sugerencias.

Si no fuera presentada ninguna reclamación o sugerencia, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo hasta entonces provisional, debiéndose proceder a la publicación de un texto íntegro del Reglamento que contemple la presente modificación en el Boletín Oficial de Bizkaia para su entrada en vigor transcurridos quince días desde su publicación, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 70 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local. Igualmente el texto íntegro y refundido se publicará en la Web municipal.

HACIENDA, CUENTAS,
PROMOCIÓN ECONÓMICA,
RECURSOS HUMANOS,
EDUCACIÓN, JUVENTUD Y
EUSKERA

57.- DACIÓN DE CUENTA DEL
DECRETO 1025/2018 DE
MODIFICACIÓN
PRESUPUESTARIA MEDIANTE
CRÉDITO ADICIONAL.

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara,

Quedaron enterados del siguiente decreto de modificación presupuestaria mediante crédito adicional:

Decreto nº 1025//2018 por un importe de 6.661,05 euros. Crédito adicional

Kreditu Gehigarria 2018/01. Hardware bat Kultur Etxeko ordutegia kontrolatzeko erabiltzen den fitxatzeko erlojurako.

2018/01. Hardware para el reloj de fichar para el control horario del Aula de Cultura.

58.- KE/2018/06 KREDITUA ERANTSIARAZTEKO DEKRETUAREN KONTU EMATEA.

58.- DACIÓN DE CUENTA DEL DECRETO DE INCORPORACIÓN DE CRÉDITO IC/2018/06.

Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta,

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara,

Eransketaren bidezko aurrekontu-aldaketaren Dekretu hau jakitun egon:

Quedaron enterados del siguiente decreto de modificación presupuestaria mediante la incorporación de remanentes:

1124/2018 zenbakidun Dekretua 48.791,89 euroko zenbatekoarekin (KE/2018/06 Espedientea)

Decreto nº 11242018 (Expediente IC/2018/06) por un importe de 48.791,89 euros.

59.- AURREKONTUAREN IDAKETAK FINANTZATZEKO ASMOZ 2017KO UDAL AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREKIN LORTUTAKO DIRUZAINZAKO GERAKINA 2018EKO DENBORALDIAN (LEHENENGO HIRUHILEKOAN) GASTU OROKORRETARAKO ERABILTZEA DELA ETA, FINANTZAIRAUNKORTASUNAREN TXOSTENA.

59.- INFORME DE SOSTENIBILIDAD FINANCIERA EN RELACIÓN CON LA UTILIZACIÓN, DURANTE EL CORRESPONDIENTE PERIODO 2018 (PRIMER TRIMESTRE), DEL REMANENTE DE TESORERÍA PARA GASTOS GENERALES OBTENIDO EN LA LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO MUNICIPAL 2017 PARA FINANCIAR MODIFICACIONES PRESUPUESTARIAS.

Txostena irakurri eta gero, Santiago Sainzek hartu du hitza. Adierazi du txostenetik ondorioztatzen dela gerakinen kontrako kreditu-gehitzeen sei txosten onartu direla, kontzeptu horretan 35 milioi euro zeudela baliatuta. Egoera hori izanik, eskatu du zergen presioa murrizteko eta ez ahazteko herritarren, enpresa txiki eta ertainen, eta autonomoen egoera zein

Tras darse lectura al informe interviene Santiago Sainz para indicar que del mismo se deriva que se han aprobado seis expedientes de incorporaciones de crédito contra remanentes aprovechando la existencia de 35 millones de euros en dicho concepto. Ante esta situación pide que se baje la presión fiscal y que no se olvide la situación de los ciudadanos, las Pymes

den.

Inazio Uriartek zehaztu du gerakina 35 milioitik gorakoa dela, 43 milioi baino pitin bat gehiago baita. Egindako gerakinen gehitzeen ondoren gainerako kreditua ez da hamaika milioitara iristen eta inbertsioetara bideratuta dago. Eta hori zergen presioa handitu gabe egin da.

Santiago Sainzek adierazi du urtero izaten direla diruzaintzako gerakin handiak eta berriro eskatu du zergen presioa murrizteko. Era berean, berretsi ditu gerakinari buruz emandako datuak txostenean jasota dagoenarekin bat datozela.

Inazio Uriartek erantzun du berresten duela diruzaintzako gerakina 43 milioi euro baino pitin bat handiagoa zela. Izan ere, aintzat hartu behar da eragindakoa, helburu zehatzik ez duena eta gerakina ia osorik inbertsioetara bideratzen ari da. Ciudadanosen proposamenari dagokionez, adierazi du ezin dela dirua aldi berean bideratu bi helburutara eta zergen presioa 2018an aldaketarik gabe egon dela, udal zergak izoztu edo bere horretan utzi baitira.

Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta,

1.- Udaleko Kontu-hartzaitzak finantza iraunkortasunari buruz egindako apirilaren 10eko 6/2018 txostenaren edukiaren jakitun egon diruzaintzako geldikina erabiltzeari dagokionez, 2018an (lehenengo hiruhilekoan), aurrekontuko aldaketak finantzatzeko.

y los autónomos.

Inazio Uriarte replica que el remanente es superior a 35 millones ya que asciende a algo más de 43 millones. Tras las incorporaciones de remanentes realizadas el crédito restante no llega a once millones y están destinados a inversiones y esto se ha realizado sin incrementar la presión fiscal.

Santiago Sainz manifiesta que todos los años se generan grandes remanentes de Tesorería e insiste en que se baje la presión fiscal a la vez que se ratifica en los datos dados sobre el remanente que se corresponde a lo que se recoge en el informe.

Inazio Uriarte replica ratificándose en que el remanente en Tesorería era algo superior a 43 millones de euros ya que hay que tener en cuenta lo afectado que tampoco tiene un destino concreto y se está destinando el remanente casi en su totalidad a inversiones. Respecto a la propuesta de Ciudadanos manifiesta que no se puede destinar el dinero simultáneamente a dos finalidades y que la presión fiscal durante el año 2018 se ha mantenido invariable ya que se han congelado los impuestos municipales.

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara,

1º.- Quedaron enterados del contenido del informe de la Intervención Municipal Nº 6/2018, de 10 de abril, sobre sostenibilidad financiera en relación con la utilización del remanente de tesorería para financiar modificaciones presupuestarias durante el 2018 (primer trimestre).

2.- 6/2018 txosten hori Bizkaiko Foru Aldundian finantza-tutoretzari dagokionez eskuduna den sailari igortzea, osoko bilkuraren akta eta euskarri izan daitekeen gainerako dokumentazioarekin batera.

2º.- Remitir dicho informe Nº 6/2018, junto al acta de la sesión del Pleno y demás documentación que sirva de soporte, al Departamento competente en materia de tutela financiera de la Diputación Foral de Bizkaia.

60.- GEHIGARRIZKO KREDITU EMATEA ONESTEA, GETXOKO UDALAREN DIRU-LAGUNTZA IZENDUNA ASOCIACIÓN "GETXO EMPRESARIAL Y COMERCIAL - GETXO EMPRESA ETA MERKATARITZA" ELKARTEARENTZAT, GETXO MODA 2018 DERITZAN EKITALDEA BURUTU AHAL DEZAN.

60.- APROBACIÓN DE CRÉDITO ADICIONAL PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIÓN NOMINATIVA DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO A FAVOR DE LA ASOCIACIÓN GETXO EMPRESARIAL Y COMERCIAL - GETXO EMPRESA, PARA REALIZAR EL EVENTO GETXO MODA 2018.

Proposamena irakurri ondoren, Inazio Uriartek hartu du hitza. Esan du hil honen amaieran Getxo Moda ekitaldia egingo dela eta haren helburua Getxon arlo hori sustatzea dela. Ekitaldiari laguntzeko, 15.000 euroko gehigarrizko kreditua planteatu da, eta aurreikusita dagoen 50.000 euroko diru-laguntza izendunari gehitu beharko zaio. Beraz, Udalaren laguntza 65.000 eurokoa izango da.

Tras dar lectura a la propuesta interviene Inazio Uriarte para indicar que a finales de este mes se va a celebrar el certamen de Gexo Moda que busca potenciar dicho sector en Getxo y para colaborar con el mismo se plantea este crédito adicional de 15.000 euros, que habrá que sumar a los 50.000 euros previstos de subvención nominativa, con lo que la ayuda municipal ascendería a 65.000 euros.

Eduardo Andradek adierazi du PP alderdiak proposamena babestuko duela, saltokiei laguntzeko duten politikarekin koherentziaz jokatzeko. Laguntzeko lan horretan zenbait tasa jaistearen lortu dute, eta merkataritzako lokalak alokatzeko eta inbertsioak egiteko laguntzak planteatu dituzte. Onartu du merkatarien elkarteetarako laguntzak handitu direla. Orain xedea da Getxo Modari laguntzea 2018 honetan pasarelen bi egunak berreskuratzeko eta, gainera, barnean hartzen dituen lotuta dauden jarduerak garrantzitsuak.

Eduardo Andrade manifiesta que el PP va a apoyar la propuesta en coherencia con su política de apoyo al comercio y que en esa labor han conseguido rebajar algunas tasas y plantean también ayudas al alquiler de locales comerciales y a la inversión, reconociendo que se han aumentado las ayudas a las asociaciones de comerciantes, ahora se trata de apoyar a Getxo Moda que para este año 2018 recupera los dos días de pasarelas y además incorpora actividades conexas importantes.

Ibon Rodriguezek adierazi du EH Bilduk ez duela argi ikusten zergatik handitu den bat-batean Getxo Modari eman beharreko laguntza, beste ekitaldi batzuekin ez baitago jarrera hori. Ez du kritikatzeko Getxo Modaren garrantzia, ez eta diru-laguntza hau ematea, baina galdetu du ea zein den gobernu-politika eta zein irizpideren arabera egiten diren diru-laguntzen emendatzeak eta kuantifikazioak. Galdetu du ea emendatze horiek beste ekitaldi batzuetara iritsiko diren, hala nola Serifalaris eta Getxophoto. Amaitzeko, gogora ekarri du Eskulangintza Azoka diru-babesik ez izateagatik desagertu zela. Horrenbestez, argitasun eta irizpiderik eza kontuan hartuta, abstenitu egingo dira.

Inazio Uriartek adierazi du Getxo Modak 33. edizioa izango duela aurtengoa. Beraz, sendotuta dagoen ekitaldia da, eta, gainera, edizio honetan jarduerak zabalduko ditu. Horregatik handitu da Udalaren laguntza. Bai Getxo Moda eta bai Serifalaris ere diru-laguntza izendun moduan aurkeztu ziren, zenbateko batzuk bermatzeko, alde batera utzirik beste ekitaldi batzuetarako laguntzak mantentzen direla, konkurrentziako prozeduren arabera. Getxo Moda sendotuta egotea eta eginda duen ibilbidea nabarmendu du, eta bai aurten ekitaldia zabalduko dela ere.

Susana Andollok adierazi du GUK ados dagoela EH Bilduk adierazi duenarekin, eta Andrade jaunari eskertu dio ekitaldiaren gaineko informazioa zabaltzea. Helarazi zaizkien datuen arabera, ez dute ez justifikaziorik ez premiari ikusten kopurua handitzeko, eta, hortaz,

Ibon Rodríguez manifiesta que EH Bildu no ve claro porque de repente se incrementa la ayuda a Getxo Moda cuando no se tiene esa actitud con otros eventos. No critica la importancia de Getxo Moda ni que se les asigne esta subvención pero pregunta cuál es la política del gobierno y con qué criterios se hacen los incrementos y cuantificaciones de las subvenciones. Pregunta si estos incrementos también van a llegar a otros eventos como Serifalaris o Getxophoto. Finaliza recordando que la Feria de Artesanía desapareció por falta de apoyo económico y que ante esta falta de claridad y criterios se abstendrán.

Inazio Uriarte indica que Getxo Moda celebra este año su 33ª edición, lo que lo define como un evento consolidado y además en esta edición amplía sus actividades, por lo que se le ha incrementado la ayuda municipal. Tanto Getxo Moda como Serifalaris se presentaron como subvenciones nominativas para garantizar unos importes sin perjuicio de que se mantienen ayudas a otros eventos bajo procedimientos de concurrencia. Destaca la consolidación y trayectoria de Getxo Moda y la singularidad de este año que se amplía el evento.

Susana Andollo manifiesta que GUK está de acuerdo con lo indicado por EH Bildu y agradece al señor Andrade que le haya ampliado la información del evento. Por los datos que se les ha traladado no ven justificación ni urgencia para el incremento, por lo que se van a abstener.

abstenitu egingo dira.

Eduardo Andradek erantzun du PPri premiazkoa iruditzen zaiola Getxoko merkataritza babestea. Getxo Moda ekitaldia bera baino gehiago da, saltokietan eta beste jarduera-sektore batzuetan dituen eraginengatik Eragina du dauden saltokietan, eta alderdiak ontzat jotzen du pasarelaren bi egunak berreskuratuta izana.

Susana Andollok erantzun du, helarazi zaien informazioaren arabera, ez dutela ikusten ekitaldiak saltokietan duen eragina, eta uste du badirela merkataritzarako kaltegarriagoak diren faktoreak, adibidez, alokairuen prezioak. Amaitzeko, adierazi du GUK ez dela iritzi berekoa proposamenari dagokionez.

Inazio Uriartek berriro esan du proposamena Getxo Modari laguntza gehigarria ematea dela eta ikusten duela zenbait alderdi politikok zalantzak dituztela saltokiak babesteko. Gobernu taldeak eta beste udal alderdi batzuek, ordea, ez dute zalantzarik. Getxoko merkataritza sendoa eta kalitatekoa dela uste du, eta nagusiki familiarra. Zehaztu du "Getxo empresa" elkarte zaharrena dela eta ehun saltokitik gora hartzen dituela barnean. Adierazi du saltokiei eman zaizkien laguntzak eta kritikatu du zenbait proposamen bozkatzekoan dagoen babes eskasa, zenbait udal talderen aldetik.

Ibon Rodríguezek uste du gobernu-politika ez dela ona merkataritzari dagokionez, gero eta gehiago baitira hutsik dauden lonjak edo saltokiak. EH Bilduk uste du merkataritza laguntzea ez dela gobernu-taldeak merkataritzaren gainean dituen politikak babestea.

Eduardo Andrade replica que al PP le parece urgente apoyar al comercio de Getxo. Getxo Moda es más que el propio evento por los efectos que tiene en el comercio y en otros sectores de actividad. Incide en el comercio existente y valora positivamente que se hayan recuperado los dos días de pasarela.

Susana Andollo contesta que por la información que se les ha trasladado no ven el impacto del evento en los comercios y cree que hay factores más perjudiciales para el comercio como son los precios de los alquileres. Finaliza manifestando que GUK no comparte la propuesta.

Inazio Uriarte insiste que la propuesta es un apoyo adicional a Getxo Moda y ve que hay grupos políticos con dudas para apoyar al comercio, dudas que no existen en el equipo de gobierno ni en algunos otros grupos municipales. Cree que el comercio en Getxo es fuerte y de calidad, así como mayoritariamente familiar. Indica que Getxo empresa es la asociación de más antigüedad y engloba más de cien comercios. Manifiesta las ayudas que se han dado al comercio criticando el escaso apoyo a la hora de votar algunas propuestas que existe por parte de determinados grupos municipales.

Ibon Rodríguez cree que la política del gobierno no es buena respecto al comercio ya que cada vez crecen más el número de lonjas vacías. EH Bildu estima que apoyar al comercio no es apoyar las políticas del equipo de gobierno sobre comercio. Critica que se

Kritikatu du egiten denaren arrandia egiten dela, baina gogora ekarri du 2016an hutsik zeuden lonjen errolda bat egitea hitzartu zela eta oraindik ez dela halakorik egin. Gogorarazi du, halaber, EAJ agintean duten udalerrri mugakideetan azalera handiak edukitzearen kontrako jarrera hartzeari uko egin diola gobernu-taldeak. Amaitzeko, adierazi du Udalbatzak erabaki zuela, PPren proposamenez eta EH Bilduren zuzenketa batekin, merkataritzari buruzko mahai bat sortzea eta gobernu-taldeak ez duela martxan jarri.

Proposamena bozkatu da eta emaitza hau izan da: aldeko 17 boto -EAJ, PP, PSE-EE, Ciudadanos- eta 8 abstentzio -GUK, EH Bildu-.

Ondorioz, Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

Onestea, gehigarritzko kreditua emateko espedientea, zk. 2018/02, zenbatekoa 15.000,00 euro duela, aurrekontu partida hauei lotua dagoena:

hacen alardes de lo que se hace pero recuerda que en el año 2016 se pactó la realización de un censo de lonjas vacías que a la fecha de hoy todavía no se ha realizado. Recuerda también que el equipo de gobierno se ha negado a posicionarse en contra de grandes superficies en municipios colindantes gobernados por el PNV. Finaliza manifestando que el pleno decidió, a propuesta del PP y con una enmienda de EH Bildu, crear una mesa sobre comercio que el equipo de gobierno no la ha puesto en funcionamiento.

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 17 votos a favor, PNV, PP, PSE-EE, Ciudadanos; 8 abstenciones, GUK, EH Bildu.

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara, por mayoría se acordó:

Aprobar el Expediente número 2018/02 de Crédito Adicional, por importe de 15.000,00 euros, que afecta a las siguientes partidas presupuestarias:

Gastuak / Gastos:

Partida	Izendapena Denominación	Zenbateko a Importe en €
005/4330/48170 01	Getxo Enpresari-TA – Getxo Moda (Ekonomia Sustapena) TC Getxo Empresa – Getxo Moda (Promoción Económica)	15.000,00
Guztira Total		15.000,00

Finantzaketa / Financiación

Diruzaintzako gerakina, gastu orokorretarako Remanente de tesorería para gastos generales	15.000,00
--	-----------

HIRIGINTZA, OBRAK ETA ZERBITZUAK ETA INGURUMENA

61.- GETXOKO HIRI- ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN 7.1.13. ARTIKULUAREN ("HIRIGINTZA- ARAUAK") ALDARAZPEN ZEHATZA HASIERA BATEAN ONESTEIA, SABAIAREN KOEFIZIENTEA ZENBATZEKO MODUARI BURUZKOA.

Proposamena irakurri eta gero Joseba Arregik hartu du hitza. Azaldu du proposamenaren asmoa eskolajolastokien erabilera hobea egitea dela, haiek estaltzearen bidez, hori zenbatu gabe eraikitzeko bolumenaren eraginetarako.

Iñaki Gamero hartu du hitza eta adierazi du PPK proposamena babestuko duela. Alderdiak uste du justifikatuta dagoela, baina era berean uste du HAPOaren artikulua hori bera berrikusi beharko litzatekeela hegalei eta etxebizitzetako terrazei dagokienez, egun %100ean zenbatzen direnak, batzordean planteatu zuten moduan.

Susana Andollok adierazi du Estatuan murriztu egin dela hezkuntza publikoaren aldeko babesak eta hezkuntza itunduaren aldeko babesari eutsi egin zaiola. Neurri jakin honi dagokionez, ez daki zein eragin izan dezakeen Getxoko ikastetxe itunduetan eta publikoetan. Uste du neurriak ikastetxe itunduei egingo diela onura, eta, GUK taldeak irakaskuntza publikoaren alde egiten duenez,

URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS Y MEDIO AMBIENTE

61.- APROBACIÓN INICIAL DE LA MODIFICACIÓN PUNTUAL DEL ART. 7.1.13 DE LAS NORMAS URBANÍSTICAS DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE GETXO, SOBRE "MODO DE COMPUTAR EL COEFICIENTE DE TECHO".

Tras darse lectura a la propuesta interviene Joseba Arregi para explicar que la misma busca una mejor utilización de los patios escolares mediante su cubrición, sin que ello compute a efectos de edificabilidad.

Iñaki Gamero interviene indicando que el PP va a apoyar esta propuesta por entender que está justificada pero cree que sería necesario también revisar el mismo artículo del PGOU respecto a los vuelos y terrazas en pisos que actualmente computan al 100%, tal y como lo plantearon en la comisión.

Susana Andollo indica que a nivel estatal se ha reducido el apoyo a la educación pública mientras que se ha mantenido el apoyo a la concertada, y relación a la medida concreta desconoce el impacto que puede tener en los centros concertados de Getxo y en los centros públicos. Opina que la medida beneficia a los centros concertados y GUK apuesta por la enseñanza pública, por lo que votarán en contra.

kontrako botoa emango dute.

Nerea Guijarrubiak adierazi du EH Bilduk uste duela HAPOko hirigintza-arauak eta HAPOa bera zaharkituta gelditu direla, eta egokia dela berrikustea. Ez da egokia ardurei ihes egitea eta uste dute neurri hau HAPO eguneratu batean sartuta egongo litzatekeela. Gainera, beste behar asko hartuko lituzke, herritarrek parte hartzeko prozesu bat egin eta gero. Aurkeztutako proposamena dela-eta, abstenitu egingo dira, ikastetxeei kalte ez egiteko, baina uste du kontrako botoa ere eman ahal izango luketela, HAPO eguneratu bat ez izatea EAJren erantzukizuna baita.

Joseba Arregik hitza hartu du PPren iradokizunak jasotzen dituela adierazteko, batzordean ere planteatu zituenak. Eman duen babesa eskertzen du, kasu honetan abstenitzea kontra bozkatzea bezalakoa baita. GUK alderdiari esan dio sare publikorako laguntzak murriztea Estatuan gertatu dela, ez Euskal Autonomia Erkidegoan, eta errepikatu du legegintzaldi osoan alderdi horrek ez duela proposamen zehatzik planteatu hirigintzaren arloan. HAPOaren eguneratze eta berrikusteari dagokionez, uste du Udalbatzaren erantzukizuna dela eta ez soil-soilik gobernu-taldearena.

Susana Andollok kritikatu du hainbat aldiz erreferentzia egitea GUK alderdiak hirigintzaren arloan ustez jardunik ez izateari. Adierazi du Durangon, ikastetxe itundu batean, eta Udalarekin egindako hitzarmen baten bidez, jolastoki bat diseinatu dutela genero-ikuspegitik eta jolastoki hori zabalduta dagoela herritar orok erabiltzeko ordu jakin batzuetatik

